

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

FILM LUZEEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Giza Eskubideen 17. Zinemaldia

apirilak 5-12 / 2019

Oinarri hauen arabera xedatzen dira “DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN” 17. ek-taldiari dagozkion film luzeak izen-ematea eta parte-hartzea lehiaketei dagokienean.

JAIALDIAN film luzeen baten izena ematearekin batera –horretarako finkatutako moduetako edozein erabilita–, izen-ematea burutu duen pertsona fisiko zein juridikoak (aurrerantzean, “AURKEZPEN-EGILEA”) espresuki eta argi eta garbi onartzen ditu OINARRI hauek.

Era berean, JAIALDIAN izena ematean, AURKEZPEN-EGILEAK film luzea ustiatzeko eskubideen jabe dela adierazten du, eta eskubide horiek, Jabetza Intelektualaren alorreko indarreko legeriak xedatuta-koari jarraiki, JAIALDIAN izena emateko eskumena (I) esleitzen diote, eta (II) hirugarren pertsonari film luzea erreproduzitu, jendaurrean ezagutarazi, eraldatu, bikoiztu eta/edo azpigitulatzeko beharrezkoa den baimena ematen die, bai eta ustiatzeko beste edozein forma erabiltzekoa ere.

Ondorioz, AURKEZPEN-EGILEAK izango du hirugarren pertsonak Jabetza Intelektualaren alorrean aurkez ditzaketen balizko erreklamazioen ardura, eta kontzeptu horiei lotutako erreklamazioak izatekotan, JAIALDIA ez kaltetzeaz arduratuko da.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ONARPENA

Hautaketa batzordeak lehiaketako film luzeak aukeratuko ditu. Aukeraketa horretan parte hartzeko, film luzeak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 2017ko urtarrilaren 1aren ondoren egindakoak izatea
- Filmen luzapenak 30 minututik gorakoa izan behar du
- Giza eskubideen inguruko edozein gaiari buruzkoa izatea

Izena emateko epea **azaroaren 5etik urtarrilaren 5era (2019)** bitartean egongo da zabalik.

Izen-ematea bide bat erabilita egin daiteke **soilik**:

Movibeta (movibeta.com)

Ez da beste bide batetik iristen den film luzerik onartuko.



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

SARIA

- Parte hartuko duten film luzeek Ikusleen Film Luze Onenari eskainitako Saria lortzeko aukera izango dute

BAIMENAK

JAIALDIAn izena eman ondoren, lehiaketan parte hartzeko onartutako film luzea ororen AURKEZPEN-EGILEAK espresuki baimentzen du JAIALDIA honako jarduerak burutzeko:

- Film luzea jendaurrean irekitako emanaldietan beharrezkoa den guztietan erreproduzitu, ikusi eta proiektatzea, JAIALDIAn parte hartzen duen bitartean.
- Film luzea beste formatu batzuetara egokitzea JAIALDIAn ikusi eta erakutsi dadin.
- Film luzea jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batzuetan azpitolatzea.
- Film luzearren irudiak eta/edo zatiak erabiltzea JAIALDIAn txosten, informazio kartel eta/edo web orri ofizialean argitaratzeko, JAIALDIARI dagokion sustapena burutze aldera.

Aipatu baimena ematea ezinbesteko baldintza izango da film luzeak JAIALDIAn parte har dezan eta AURKEZPEN-EGILEAK ez du inolako ordain ekonomikorik jasoko.

DATUEN BABESA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesten dituenak (aurrerantzean, **DBLO**), xedatutakoaren arabera, AURKEZPEN-EGILEARI jakinarazten zaio film luzea JAIALDIAn izena ematearekin emandako datuak zein film luzea horrek JAIALDIAn parte hartzearen ondorioz aurrerantzean emango dituen datu guztiak DONOSTIA KULTURA Enpresa Erakunde Publikoaren –Datuak Babesteko Euskal Agentzia txit gorenean behar bezala inskribatuta dagoena– fitxategi bati gehituko zaizkiola bertan tratatzeko, betiere film luzearen parte-hartzea JAIALDIAn kudeatu eta filmaren publizitatea egiteko xedearekin.

Datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa nahitaez eman beharko da eta, informazio hori eman ezean edo datu okerrak emanez gero, film luzeak ezingo du JAIALDIAn parte hartu.

Izaera pertsonaleko datu horien gaineko aldaketa oro jakinaraziko dio datuen titularrak fitxategiaren arduradunari, eta uneoro emandako datuak egiazkoak eta zehatzak direla ziurtatuko du. Hirugarren pertsonen datuak emanez gero, AURKEZPEN-EGILEAK datu horien titularren baimena beharko du datuak jakinarazteko.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak baliatzeko, AURKEZPEN-EGILEAK eta/edo beste edozein interesdunek honako helbide honetara idatz dezakete DBLOak aurreikusitako baldintzei jarraituz: DONOSTIA KULTURA, Teatro Victoria Eugenia, Reina Regente, nº 8, 20003 – Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa).



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagitagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

HIZKUNTZA, LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

OINARRI hauek gaztelaniaz idatzi dira eta beste hizkuntza batzuetara itzuli ahal izango dira, kontuan hartuta gaztelania dela kontrolerako hizkuntza, bai eta itzulpenen arteko kontraesanak izatekotan gailenduko den hizkuntza ere.

OINARRI hauek Espainiako Legea beteko dute eta lege horren arabera interpretatuko dira. OINARRI hauei, haien interpretazioari eta aplikazioari lotuta sor daitekeen eztabaida ororen ebazpena Donostiako (Gipuzkoa) Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzio eskusiboaren mende egongo da, eta AURKEZPEN-EGILEAK baldintza hori onartuko du.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Victoria Eugenia Antzokia
Erregina erregentea, 8-4º
20003 Donostia
Tel.: +34 943 481 157
cinema_cinema@donostia.eus